# 2016KO MAIATZAREN 31KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MAYO DE 2016

| | |
|---|---|
| **Akta zenbakia:** 5/2016<br>**Bilera data:** 2016-05-31<br>**Bilera mota:** ohiko osoko bilkura<br>**Deialdia:** Lehenengoa<br>**Ordu:** 19:00- 21:00<br>**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia | **Acta nº:** 5/2016<br>**Fecha:** 31-05-2016<br>**Tipo de reunión:** Pleno ordinario<br>**Convocatoria:** Primera<br>**Hora:** 19:00- 21:00<br>**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento |
| **Bertaratutakoak:**<br>**Alkatea:** Mikel Pagola Tolosa | **Reunidos:**<br>**Alcalde:** Mikel Pagola Tolosa |
| **Zinegotziak:**<br>Maribel Vaquero Montero<br>Jorge Segurado Iriondo<br>David Rosco Jorge<br>Manuel Mayoz Ostolaza<br>Juan Luis Goikoetxea Benzala<br>Mª Pilar Sarasola Bulman<br>Mikel Izagirre Rekondo<br>Itziar Artola Bedia<br>Ixiar Martiarena Lizarazu<br>Xabier Yurramendi Garmendia<br>Consuelo Frutos Gonzalez<br>Ivan Haro Marcos | **Concejales:**<br>Maribel Vaquero Montero<br>Jorge Segurado Iriondo<br>David Rosco Jorge<br>Manuel Mayoz Ostolaza<br>Juan Luís Goikoetxea Benzala<br>Mª Pilar Sarasola Bulman<br>Mikel Izagirre Rekondo<br>Itziar Artola Bedia<br>Ixiar Martiarena Lizarazu<br>Xabier Yurramendi Garmendia<br>Consuelo Frutos González<br>Iván Haro Marcos |
| **Bitarteko Idazkaria:**<br>Nagore Alkorta Elorza | **Secretaria interina:**<br>Nagore Alkorta Elorza |
| **Aztergaiak:** | **Orden del día:** |
| **1.- 2016ko apirilaren 26ko eta maiatzaren 26ko aktak onartzea, bidezkoa bada.** | **1.- Aprobación, si procede, del acta de 26 de abril, y 26 de mayo de 2016.** |
| **2.-Manuel Mayoz zinegotziak kargua hartzea.** | **2.- Toma de posesión del cargo de concejal de Manuel Mayoz.** |
| **3.- Informazio-batzordeen osaera berria.** | **3.-Nueva configuración de las Comisiones Informativas.** |
| **4.-Kontu Orokorra behin betiko onartzea.** | **4.- Aprobación definitiva de la Cuenta General.** |
| **5.-Berraztertzeko errekurtsoari erantzutea eta kreditua aldatzeko 02/2016 zenbakidun espedientearen behin betiko onarpena.** | **5.- Contestación al recurso de reposición y aprobación definitiva del expediente de modificación de crédito nº 02/2016.** |
| **6.-Musika eskolako tasak aldatzea.** | **6.- Modificación de las tasas de la escuela de Música.** |

**7.-Kontu-hartzailetza txostenaren berri ematea.**

**8.-Zurrumurruen aurkako sarearekin bat egitea.**

**9.-Mozioak:**

**9.1.-Udal talde sozialistak aurkeztutako mozioa Estatuburuek eta EBko gobernuak izenpetutako aurreakordioari buruz.**

**9.2.-EH Bilduk aurkeztutako mozioa errefuxiatuei eta asilo eskatzaileei buruz.**

**9.3.- EH Bilduk aurkeztutako mozioa DBEri buruz (Diru sarrerak bermatzeko errenta).**

**9.4. Udal talde sozialistak EH Bilduren mozioari aurkeztutako zuzenketa, gizarte laguntzak berreskuratzeari buruzkoa.**

**9.5. EH Bilduk Zubietako erraustegiari buruz aurkeztutako mozioa eta Usurbilgo alkateak egindako eskaria.**

**10-Galdera-eskariak.**

**7.- Dar cuenta del Informe de intervención.**

**8.- Adhesión a la Red Vasca Antirumores.**

**9.-Mociones;**

**9.1.-Moción presentada por el Grupo municipal socialista sobre el preacuerdo suscrito por los jefes de Estado y Gobierno de la UE.**

**9.2.-Moción presentada por EH Bildu sobre los refugiados y solicitantes de asilo.**

**9.3.- Moción presentada por EH Bildu sobre la AGI ( Ayuda de Garantía de Ingresos )**

**9.4.- Enmienda presentada por el Grupo municipal socialista a la moción presentada por EH Bildu sobre la recuperación de las ayudas sociales.**

**9.5.- Moción presentada por EH Bildu contra la incineradora de Zubieta y solicitud planteada por el Alcalde Usurbil en torno a la incineradora.**

**10.- Ruegos y preguntas**

**1.- 2016ko apirilaren 26ko eta maiatzaren 26ko aktak onartzea, bidezkoa bada.**

2016ko apirilaren 26ko eta maiatzaren 26ko akta onartzea proposatzen da.

Udalbatzak aho batez onartu ditu 2016ko apirilaren 26an eta maiatzaren 26an ospatutako osoko bilkuren aktak.

**1.- Aprobación, si procede, del acta de 26 de abril, y 26 de mayo de 2016.**

Se propone la aprobación del acta de 26 de abril, y 26 de mayo de 2016.

El Pleno ha aprobado de forma unánime las actas de las sesiones plenarias celebradas los días 26 de abril, y 26 de mayo de 2016.

**2.-Manuel Mayoz zinegotziak kargua hartzea.**

Alkateak hartu du hitza eta esan du Miren Martiarenak ospatutako azken osoko bilkuran karguari uko egin eta gero, orain Eusko Alderdi Jeltzaletik Manuel Mayoz zinegotzia izendatzea egokitzen dela. Nekazaritza arloarekin lotutako gaiez arduratuko da, eta Udaleko ordezkaria izango da Behemendi Elkartean.

Ikusirik izendapenaren dokumentuak zuzenak direla

**2.- Toma de posesión del cargo de concejal de Manuel Mayoz.**

Toma la palabra el alcalde para señalar que tras la renuncia presentada por Miren Martiarena en el último pleno celebrado, corresponde ahora nombrar a Manuel Mayoz concejal del Partido Nacionalista Vasco. Se encargará de los temas relacionados con el mundo rural, y será nombrado como representante del Ayuntamiento en la Asociación Behemendi.

Visto que los documentos de nombramiento son

eta Legeak zinegotzi karguak betetzeko agintzen dituen izapide guztiak bete ondoren, Manuel Mayoz Ostolazak zinegotzi kargua hartzen du.

correctos y tras cumplir todos los trámites que ordena la Ley para la toma de posesión de cargo de concejales, Manuel Mayoz Ostolaza toma el cargo de concejal.

**3.- Informazio-batzordeen osaera berria.**

**3.-Nueva configuración de las Comisiones Informativas.**

Alkateak hartu du hitza eta esan du gai hori 2016ko maiatzaren 23ko Antolakuntzako Informazio Batzordean landu zela.

Toma la palabra el alcalde para señalar que este tema se ha tratado en la Comisión Informativa de Organización de fecha 23 de mayo de 2016.

Nagore Alkorta udal idazkariak hartu du hitza eta esan du Manuel Mayozen izendapenaren ondorioz, Eusko Alderdi Jeltzaleak zenbait aldaketa proposatu zituela Informazio batzordeen osaeran, udalaz gaindiko organoetan, eta udal sozietateen kudeaketa organoetan. Era berean, EH Bildu-ren udal taldeak ere bere proposamenak aurkeztu zituen horri buruz. Azpimarratzen du igorritako dokumentazioan akats bat dagoela, Lurraldeko Informazio Batzordeko titular modura Mikel Pagola agertzen baita, titularra Maribel Vaquero izango bada ere eta Mikel Pagola ordezkoa.

Toma la palabra la secretaria municipal Nagore Alkorta señalando que a raíz del nombramiento de Manuel Mayoz, el Partido Nacionalista Vasco propuso una serie de modificaciones en la configuración de las distintas Comisiones Informativas, órganos supramunicipales así como en los órganos de gestión de las sociedades municipales. Asimismo el grupo municipal de EH Bildu presentó también sus propuestas al respecto. Subraya que en la documentación remitida hay un error ya que aparece como titular de la Comisión informativa de Territorio Mikel Pagola cuando la titular será Maribel Vaquero y Mikel Pagola será el suplente.

Alkateak gaia bozkatzea proposatu du eta emaitza honako hau izan da:

El alcalde ha propuesto someter a votación el punto, con el siguiente resultado:

Alde: 13 (EAJ-PNV 7, EH BILDU 4, PSE-EE/PSOE 2)

A favor: 13 (EAJ-PNV 7, EH BILDU 4, PSE-EE/PSOE 2)

Aurka: 0

En contra: 0

Abstentzioak: 0

Abstenciones: 0

Ikusirik 2016ko maiatzaren 23ko Antolakuntzako Informazio Batzordean puntua eztabaidatu eta horri buruzko informazioa eman zela.

Visto que en la Comisión Informativa de Organización celebrada el día 23 de mayo de 2016, se trató e informó sobre este punto.

Osoko Bilkurak, aho batez hartu du ondorengo

El Pleno, acuerda por unanimidad el siguiente

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**Lehenengoa eta bakarra**.- Informazio Batzordeen osaera berria onartzea (I. eranskina)

**Primero y único.-** Aprobar la nueva configuración de las Comisiones Informativas. ( Anexo I)

**4.-Kontu Orokorra behin betiko onartzea.**

Mikel Pagola alkateak hartu du hitza eta esan du 2016ko maiatzaren 9an Kontuen Batzorde Berezia ospatu zela, 2015eko Kontu Orokorrei buruzko informazioa emateko.

Aitziber Zurutuza udal kontu-hartzaileak hartu du hitza eta esan du Kontu Orokorra 2016ko maiatzaren 9ko Kontuen Batzorde Berezian jakinarazi zela eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da 2016ko maiatzaren 12an. Ez da erreklamaziorik aurkeztu legeak ezarritako epearen barruan, eta beraz, bozkatu egingo da 2015eko Kontu Orokorrak onartu daitezen.

Jarraian, alkateak bozkatzea proposatu du, eta emaitza honako hau izan da:

Alde: 13(EAJ-PNV 7 BILDU 4,PSE-EE/PSOE 2 )

Aurka: 0,

Abstentzioak: 0

Ikusirik 2016ko maiatzaren 9an ospatutako Kontuen Batzorde Berezian puntu hori landu eta horri buruzko informazioa eman zela.

Ikusirik abenduaren 19 21/2003 Foru Arauko 63. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, espedientea 2016ko maiatzaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela 15 egun balioduneko epean, interesdunek aztertu eta egoki ikusten dituzten erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ditzaten.

Bozketaren ondoren, Osoko Bilkurara bertaratutakoekin hartu du ondorengo

**ERABAKIA**

**Lehena.-** 2015 ekitaldiko Kontu Orokorrak onartu.

**Bigarrena**.-2015 ekitaldiko Kontu Orokorrak Kontu Publikoen Euskal Auzitegira igorri.

**4.- Aprobación definitiva de la Cuenta General.**

Toma la palabra el alcalde Mikel Pagola para señalar que a fecha de 9 de mayo de 2016 se celebró la Comisión Especial de Cuentas para informar sobre las Cuentas Generales del 2015

Toma la palabra la interventora municipal Aitziber Zurutuza y comenta que la Cuenta General se informó en la Comisión especial de Cuentas de fecha 9 de mayo de 2016 y se ha publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 12 de mayo de 2016. No se ha presentado ninguna reclamación dentro del plazo establecido por la ley, por lo que procede pasar a la votación para la aprobación de las Cuentas Generales del 2015.

A continuación, el alcalde propone someterlo a votación, obteniendo el siguiente resultado:

A favor: 13(EAJ-PNV 7 BILDU 4,PSE-EE/PSOE 2 )

En contra: 0,

Abstenciones: 0

Visto que en la Comisión Especial de Cuentas celebrada el 9 de mayo de 2016 se trató e informó sobre este punto.

Visto que de acuerdo con lo dispuesto en el art. 63 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, se publicó el expediente en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 12 de mayo de 2016 durante el plazo de 15 días laborables, a fin de que los interesados pudieran analizarlo y presentar las reclamaciones, convenientes y sugerencias que estimaran oportunas.

Tras la votación, el Pleno por unanimidad de los asistentes ha adoptado el siguiente

**ACUERDO**

**Primero.-** Aprobar las Cuentas Generales del ejercicio 2015.

**Segundo.-** Remitir las Cuentas Generales del ejercicio de 2015 al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

**5.-Berraztertzeko errekurtsoari erantzutea eta kreditua aldatzeko 02/2016 zenbakidun espedientearen behin betiko onarpena.**

Mikel Pagola alkateak hartu du hitza eta esan du bi gai aztertu behar direla puntu honetan. Lehenik udal talde sozialistak aurkeztutako berraztertzeko errekurtsoari erantzuna, 2016ko apirilaren 26ko Osoko Bilkurako gai zerrendako bigarren puntuaren onarpenaren aurka, eta bigarrenik, kreditu aldaketarako 02/2016 zenbakidun espedientearen behin betiko onarpena.

Maribel Vaquero Antolakuntza Batzordeko lehendakariak hartu du hitza eta esan du gai hori 2016ko maiatzaren 23ko Antolakuntzako Informazio Batzordean landu eta diktaminatu zela. Osoko Bilkurari dagokio errekurtsoa erabakitzea. Maribel Vaquerok labur-labur azaldu du aurkeztutako errekurtsoa, eta bertan dio, besteak beste, ez zutela gai zerrendan sartutako gaien dokumentazioa osorik, erabakia baliogabea dela eta inpugnatutako ekintza bertan behera uztea eskatzen zutela. Azpimarratu du Batzordean gaia eztabaidatu zela eta aldi berean Udal talde sozialistak errekurtsoa kentzea eskatu zutela, txosten teknikoetan oinarrituz ikusten baitzen ez zuela ibilbiderik, ez inolako legezko oinarririk aurrera egiteko. Bere ustez, beharrezko informazioa zuten gaia osoko bilkuran aztabaidatu ahal izateko, eta horregatik, proposatzen dute 02/2016 zenbakidun kreditu aldaketako espedientearen behin betiko onarpena bozkatu dadila, ezarritako berraztertzeko errekurtsoa atzera botaz.

Nagore Alkorta udal idazkariak hartu du hitza eta esan du, Antolakuntza Informazio Batzordearen deialdiarekin batera, berak eta kontu-hartzaileak sinatutako txostena igorri zutela, 02/2016 zenbakidun kreditu aldaketako espedientearen behin betiko onarpenaren aurka ezarritako berraztertzeko errekurtsoa atzera botatzea eta kreditu aldaketa horren behin betiko onarpena proposatzen zituena. Idazkariak azpimarratu du osoko bilkurako erabakiek balioa izan dezaten oso garrantzitsua dela bozkatu diren gaiak aurretik dagokion Batzordean eztabaidatuak eta diktaminatuak izatea, oraingo honetan gertatu den moduan. Apirilaren 26ko osoko bilkurako bigarren puntua, apirilaren 4ko Antolakuntza Batzordean jakinarazi, landu, eztabaidatu eta diktaminatu zen,

**5.- Contestación al recurso de reposición y aprobación definitiva del expediente de modificación de crédito nº 02/2016.**

Toma la palabra el alcalde Mikel Pagola señalando que hay dos temas a resolver en este punto. En primer lugar, la contestación al recurso de reposición presentado por el grupo municipal socialista contra la aprobación del punto número dos del orden del día del Pleno de fecha 26 de abril de 2016 y en segundo lugar ,la aprobación definitiva del expediente de modificación de crédito nº 02/2016.

Toma la palabra la presidenta de la Comisión de Organización Maribel Vaquero señalando que este tema se trató y dictaminó en la Comisión Informativa de Organización de fecha 23 de mayo de 2016. Corresponde al pleno la resolución del recurso. Maribel Vaquero explica resumidamente el recurso planteado en el que se señala, entre otros, que no disponían de la documentación íntegra de los asuntos incluidos en el orden del día, que el acuerdo es nulo y petición de suspensión del acto impugnado. Recalca que en la Comisión se debatió el tema y a su vez solicitaron que el Grupo municipal socialista retirara el recurso puesto que en base a los informes técnicos se veía que no tenía recorrido, ni base legal alguna para que prosperase. Entiende que disponían de la información necesaria para que el asunto se pudiera votar en pleno, por lo que proponen se someta a votación la aprobación definitiva del expediente de modificación de crédito nº 02/2016, desestimando el recurso de reposición interpuesto.

Toma la palabra la secretaria municipal Nagore Alkorta señalando que junto con la Convocatoria de la Comisión informativa de Organización remitieron el informe suscrito por ella y por la interventora en el que se proponía la desestimación del recurso de reposición interpuesto contra el expediente de modificación de crédito 02-2016 y la aprobación definitiva de dicha modificación de crédito. Recalca la secretaria que una cuestión principal para la validez de los acuerdos plenarios y es el hecho de que los asuntos que se hayan sometido a su votación hayan sido debatidos y dictaminados previamente en la correspondiente Comisión, tal y como ha sucedido en esta ocasión. El segundo punto del pleno del día 26 de abril , fue informado, tratado, debatido y dictaminado el día 4 de abril en

eta data horretarako gaiari buruzko informazio guztia eskuratu zuten. Zinegotzi guztiek kreditu aldaketari buruzko informazioa jaso zuten, eta baita izandako diru-sarrerei, sortutako partidei eta horien zenbatekoari buruz ere, onarpen prozeduraren inguruko informazioa ere eman zitzaielarik. Orain inpugnatzen den ekintza bozkatzea eta onartzea, legez ezarritako prozedurari doitzen zaio, eta baita aplikagarri den tokiko araudiari ere, baldintza hauek ematen direlako: kreditu aldaketaren inguruko informazioa banatu zen informazio batzorde bat ospatu zen (bai eragiten zien partidena, bai kontu-hartzailearen txostena) eta Antolakuntza Batzordearen diktamina egin zen, Osoko Bilkuran bozka zedin.

la Comisión de Organización, disponiendo ya a esas fechas de toda la información inherente al asunto. Todos los concejales fueron informados de la modificación de crédito, los ingresos habidos, las partidas creadas y el importe de las mismas, informándoles asimismo del procedimiento de aprobación. El sometimiento a votación y aprobación del acto ahora impugnado se ajusta al procedimiento legalmente establecido, ajustándose a la normativa local de aplicación al concurrir los siguientes supuestos: celebración de una Comisión informativa en el que se reparte la información de la modificación de crédito, tanto de las partidas afectadas así como del informe de la interventora y dictamen en la Comisión de Organización para su sometimiento a votación ante el Pleno.

Consuelo Frutos udal talde sozialistako bozeramaleak hartu du hitza eta esan du seguraski une honetan Udalbatza osoa jakinararen gainean egongo dela beraiek aurkeztutako berraztertzeko errekurtsoaren inguruan eta esango duen gauza bakarra dela berretsi egiten dutela errekurtso horretan adierazitako guztia eta hemen bozkatuko dena errekurtso hori ez onartzea baldin bada, beraiek aurka bozkatuko dutela, eta ez dutela gai horri buruz ezer gehiago esango.

Toma la palabra la portavoz del Grupo municipal socialista Consuelo Frutos para señalar que suponen que en este momento toda la Corporación está informada sobre el recurso de reposición que presentaron y que simplemente va a decir que se ratifican en todo lo manifestado en ese recurso y que si lo que se va a votar aquí es la desestimación que ellos votarán en contra y que no va a decir nada más sobre este tema.

Itziar Artola EH Bilduko bozeramaleak hartu du hitza eta esan du espedientea onartzearen alde bozkatuko dutela, horren edukiarekin ados baitaude.

Toma la palabra la concejala de EH Bildu Itziar Artola señalando que votarán a favor de la aprobación del expediente al estar del acuerdo con el contenido.

Maribel Vaquerok hartu du hitza eta esan du ulertzen duela kasu honetan udal talde sozialistak gaizki ulertu bat izan duela, bi expediente nahastu dituela, bata kreditu aldaketari buruzkoa eta beste bat, behin kreditu hori gaitu eta gero, exekutatu beharreko proiektuei buruzkoa. Espero du ez daitezela berriro horrelako gaizki ulertuak gertatu. Kreditu aldaketa mota hori, behin baino gehiagotan egin da, inpugnatu den espedientearekin jarraitu den prozedura berdinarekin.

Toma la palabra Maribel Vaquero para señalar que entiende que en este caso el grupo municipal socialista ha tenido un malentendido, que ha mezclado dos expedientes, uno el referente a la modificación de crédito y el otro el referente a los proyectos a ejecutar una vez habilitado el crédito. Espera que no sucedan de nuevo este tipo de malentendidos. Este tipo de modificación de créditos ha sido tratada más de una vez con el mismo procedimiento seguido en el expediente que ha sido objeto de impugnación.

Alkateak gaia bozkatzea proposatu du eta emaitza honako hau izan da:

El alcalde ha propuesto someter a votación el punto, con el siguiente resultado:

Alde: 11 (EAJ-PNV 7, EH BILDU 4 )

A favor: 11 (EAJ-PNV 7, EH BILDU 4 )

Aurka: PSE-EE/PSOE 2

En contra: PSE-EE/PSOE 2

Abstentzioak: 0

Ikusirik 2016ko maiatzaren 23ko Antolakuntzako Informazio Batzordean, gai hori landu zela eta horri buruzko informazioa eman zela.

Ikusirik udal idazkariak eta kontu-hartzaileak izenpetutako txostena.

Osoko Bilkurak, legeak eskatzen duen gehiengoarekin hartu du ondorengo

**ERABAKIA**

**Lehena.-** Udal talde sozialistak 02/2016 kreditu aldaketarako espedientearen aurka ezarritako berraztertzeko errekurtsoa bere osotasunean ez onartzea, udal idazkariak eta kontu-hartzaileak egindako txosten teknikoan oinarrituz.

**Bigarrena**.-02/2016 kreditu aldaketarako espedientea behin betiko onartzea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

**6.- Musika eskolako tasak aldatzea.**

Alkateak hartu du hitza eta esan du gai hori 2016ko maiatzaren 23ko Antolakuntzako Informazio Batzordean landu zela.

Musika eskolako prezioak aldatzea proposatzen da, musika-lengoia espezialitatean soilik izena emateko aukera jarriz, honako prezio hauekin:

- *<18 urtez azpikoak eta langabetuak : 186 €*
- *Urnietarrak: 232 €*
- *Kanpokoak: 325€*

Consuelo Frutosek hartu du hitza eta esan du Musika Eskolaren tasaren alde bozkatuko dutela, baina gogorarazi nahi du aurreko legegintzaldian musika eskolaren bideragarritasunaren azterketa egiteko konpromisoa hartu zela eta ikasturteak igarotzen doazela eta azterketa ez dela egin. Hartutako konpromisoa berrartu dadila eskatzen dute.

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du lanketa hori derrigorrez egitea tokatuko zaigula, ez guri bakarrik

Abstenciones: 0

Visto que en la Comisión Informativa de Organización celebrada el día 23 de mayo de 2016, se trató e informó sobre este punto.

Visto el informe suscrito por la secretaria e interventora municipales

El Pleno, acuerda con la mayoría legal requerida el siguiente

**ACUERDO**

**Primero.-** Desestimar en su integridad el recurso de reposición interpuesto por el grupo municipal socialista contra el expediente de modificación de crédito 02/2016, en base al informe técnico emitido por la secretaria e interventora municipales.

**Segundo.-**Aprobar definitivamente el expediente de modificación de crédito 02 /2016 y ordenar su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**6.- Modificación de las tasas de la escuela de Música.**

Toma la palabra el alcalde para señalar que este tema se ha tratado en la Comisión Informativa de Organización de fecha 23 de mayo de 2016.

Se propone la modificación de precios de la escuela de música, estableciéndose la posibilidad de apuntarse únicamente en la especialidad de lenguaje musical con los precios correspondientes:

- *<18 años y desempleados : 186 €*
- *Urnietarras: 232 €*
- *Foráneos: 325€*

Toma la palabra Consuelo Frutos señalando que votarán a favor de la tasa de la Escuela de Música pero quiere recordar que en la anterior legislatura se adquirió el compromiso de hacer un estudio de viabilidad de la escuela de música y que van pasando los cursos y el estudio no se ha llevado a cabo. Solicitan se retome el compromiso adquirido.

Toma la palabra el alcalde para señalar que sí o sí nos tocará tratar ese tema, y no sólo a nosotros,

baizik eta udaletxe guztiei. Izan ere, orain dela gutxi Eusko Legebiltzarrean onartutako Udal Lege horretan aipatzen dira argi eta garbi zeintzuk diren udal eskuduntzak eta udalak behar dituzten baliabide ekonomikoak zerbitzu horiek eskaintzeko. Eta musika eskolei dagokionez, lanketa orokor bat egiteko asmoa dago, ikusteko ea hasiera hasieratik ezarrita zeuden printzipio orokor horiek, hau da, musika eslolak hiru hanketan oinarritu beharko liratekeela, bai Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzak, bai Urnietako udalak ematen duen diru-laguntza eta baita ere musika eskolako ikasleek egin beharreko kuoten aportazioengatik, 3 horien arteko oreka bilatzeko. Udalak une hori aprobetxatu beharko du bai bideragarritasuna aztertzeko, udalaren diru-laguntza, ikasleek ordaindu beharreko tasak, musika eskolan ze instrumentu eman beharko liratekeen..eta honetaz guztiaz hitz egin beharko da.

sino a todos los ayuntamientos. Ya que en esa Ley Municipal aprobada hace poco en el Gobierno Vasco, se mencionan claramente cuáles son las competencias municipales y los recursos económicos que necesitan los ayuntamientos para ofrecer esos servicios. Y en cuanto a las escuelas de música, tenemos la intención de tratar el tema de forma general, para ver si esos principios generales estaban puestos desde el principio, es decir, que las escuelas de música deberían apoyarse en tres pies, tanto las ayudas aportadas por el Gobierno Vasco, como las ayudas económicas aportadas por el Ayuntamiento de Urnieta, y también las aportaciones de cuotas por parte del alumnado, para que haya un equilibrio entre las tres. El Ayuntamiento tendrá que aprovechar ese momento para estudiar la viabilidad, la ayuda económica del ayuntamiento, las tasas a pagar por los alumnos, los instrumentos que se deberían impartir…y habrá que hablar de todo ello.

Alkateak puntu hori bozkatzea proposatu du, eta emaitza honako hau izan da:

Alde: 13 ( EAJ-PNV 7, EH BILDU 4 , PSE-EE/PSOE 2)

Aurka: 0

Abstentzioak: 0

Ikusirik 2016ko maiatzaren 23an ospatutako Antolakuntzako Informazio Batzordean puntu horri buruzko informazioa eman zela eta landu egin zela.

Ikusirik udal idazkariak eta kontu-hartzaileak egindako txostena.

Osoko Bilkurak, aho batez hartu du ondorengo

El alcalde ha propuesto someter a votación el punto, con el siguiente resultado:

A favor: 13 ( EAJ-PNV 7, EH BILDU 4 , PSE-EE/PSOE 2)

En contra: 0

Abstenciones: 0

Visto que en la Comisión Informativa de Organización celebrada el día 23 de mayo de 2016, se trató e informó sobre este punto.

Visto el informe suscrito por la secretaria e interventora municipales

El Pleno, acuerda por unanimidad el siguiente

**ERABAKIA**

**Lehena**.- Zergak, tasak eta prezio publikoak arautzen dituzten Ordenantza fiskalek aldaketari hasierako onarpena ematea (II. eranskina).

**Bigarrena**.- 30 egun baliodunneko epean espedientea publikoki agertzea, Gipuzkoako Tokiko Ogasunak Arautzen dituen 11/1989 Foru Arauaren 11/1989 Foru Arauko 16.1 artikuluak ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki taulan iragarkiak jarriz.

**ACUERDO**

**Primero.-** Aprobar inicialmente la modificación de las Ordenanzas fiscales reguladoras de impuestos, tasas y precios públicos. ( Anexo II)

**Segundo.-** Someter a información pública el expediente durante un plazo de 30 días hábiles, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 16.1 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de la Haciendas Locales de Gipuzkoa, mediante publicación de anuncios en el Boletín Oficial de

Gipuzkoa y en el tablón de edictos del Ayuntamiento.

**7.-Kontu-hartzailetza txostenaren berri ematea.**

Udal kontu-hartzaileak kreditu aldaketaren ondorioz egindako txostenaren berri eman du (kreditu gehigarrien modalitatean 260.000€-ko zenbatekoarekin). Kreditu aldaketa bat egitea planteatzen den bakoitzean, horretarako ezarritako baldintzak betetzen diren ala ez jakianarazi behar da, aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasun gaietan dagoen araudiaren arabera. Hiru helburu betetzen direla aztertu behar da:

1.- Aurrekontuaren egonkortasuna.
2.- Zor publikoa.
3.- Gastu araua

Jarraian txostena azaltzen da: helburuak betetzen direla ziurtatzen duena: *"1/2013 Foru Arauaren 2. artikuluan ezartzen da, aurrekontuaren gauzapena, onarpena eta egikaritzea aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasun marko baten barruan egin behar dela. Helburu hori egiaztatzeko, aurrekontuaren onarpena, aldaketa eta likidazioa egin beharko dira.*

*1/2013 Foru Arauan ezarritakoa betetzeko, hiru helburu betetzen direla egiaztatu beharko da:*

*1.- Aurrekontuaren egonkortasuna*
*2.- Zor publikoa*
*3.- Gastu araua*

*2016rako onartutako arauak kontuan izanik, aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasun gaietan, finantza-babes eskuduntza garatzeko aginduan, kreditu aldaketaren espedientean betetzen dela egiaztatu da. Aipatutako hiru helburuetakoren bat betetzen ez bada, plan ekonomiko-finantzieroa egin beharko da.*

*1. Aurrekontuaren egonkortasuna*

*2016rako bete beharreko helburua aurrekontuaren egonkortasunari dagokionez, zero defizita da, Kontu*

**7.- Dar cuenta del Informe de intervención.**

La interventora municipal da cuenta del informe realizado a raíz del expediente de modificación de créditos (en su modalidad de créditos adicionales por un importe de 260.000€). Cada vez que se plantea la realización de una modificación de crédito hay que informar si se cumplen o no los requisitos establecidos para ello en la normativa que existe en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera. Ha de revisarse el cumplimiento de tres objetivos:

1.-Estabilidad presupuestaria.
2.- Deuda pública.
3.- Regla de gasto.

Se expone a continuación el informe: que acredita el cumplimiento de los objetivos: "*En el art. 2 de la Norma Foral 1/2013 se establece que la elaboración, aprobación y ejecución del presupuesto debe realizarse dentro de un marco de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera. Este objetivo habrá de verificarse en la aprobación, modificación y liquidación del presupuesto.*

*Para cumplir con lo establecido en la norma Foral 1/2013 hay que revisar el cumplimiento de tres objetivos:*

1. *Estabilidad presupuestaria*
2. *Deuda Pública*
3. *Regla de gasto*

*Teniendo en cuenta las reglas aprobadas para el 2016 en la instrucción para el desarrollo de la competencia de tutela financiera en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera se ha verificado su cumplimiento en el expediente de modificación de crédito. En el caso de incumplimiento de alguna de los tres objetivos mencionados se deberá formular un plan económico -financiero.*

*1. Estabilidad presupuestaria*

*El objetivo a cumplir para el 2016 respecto a la estabilidad presupuestaria es el déficit cero de*

*Nazioanalen eta Eskualdeko Kontuen Europar Sisteman jasotako definizioarekin bat etorriz.*

*04 kreditu aldaketaren espedienteak ez du helburu hori betetzen, diruzaintzako gerakina erabiltzen delako.*

*Aurrekontuaren egonkortasuna ez betetzea, diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatzen bada, Plana ordezkatu egingo da, Osoko Bilkurari egoera horren berria jakinaraztearekin.*

*2. Zor publikoa*

*Bete beharreko helburua izango da abenduaren 31n likidatutako diru-sarrera arrunten %80 baino handiagoa izango ez den zor publikoa izatea.*

*2016ko abenduaren 31n aurreikusten da Udaleko zor bizia 2015ean likidatutako diru-sarrera arrunten %9,64 izango dela. Kalkulu hori egiteko, 2015eko abenduaren 31n indarrean zeuden eragiketa guztiei dagokion zor biziaren zenbatekoa zatitu egin da, abaletatik eratorritako arriskua barne; lortutako emaitzari formalizatutako eta erabili gabeko eragiketak gehitu zaizkio, 2016rako aurreikusita daudenekin batera, eta 2016rako aurreikusitako amortizazioak kendu zaizkio.*

*Beraz, kreditu aldaketaren espedienteak kontuan izanik, tokiko erakunde honek betetzen du finantza iraunkortasunaren helburua.*

*3. Gastu araua*

*2016rako bete beharreko helburua izango da 2015eta 2016 bitartean konputagarria den gastuaren bariazioa ez izatea %1,8 baino handiagoa.*

*Gastu konputagarriaren bariazioa Udalean 2015 eta 2016 bitartean %11,25ekoa da.*

*Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako erakundeen datu bateratuak izan diren kontuan, honako xehetasunarekin bat etorriz (2015eko datuak likidazioarenak dira):*

*acuerdo con la de definición contenida en el Sistema Europeo De Cuentas Nacionales y Regionales.*

*El expediente de modificación de crédito 04 no cumple con este objetivo debido a la utilización del remanente de tesorería.*

*Cuando el incumplimiento de la estabilidad presupuestaria se produzca como consecuencia de la utilización del remanente de tesorería el Plan será sustituido por la comunicación al Pleno constatando tal circunstancia.*

*2. Deuda pública*

*El objetivo a cumplir será tener a 31 de diciembre una deuda viva no superior al 80% de los ingresos corrientes liquidados*

*A 31 de diciembre de 2016, se prevé que la deuda viva del Ayuntamiento suponga el 9,64% de los ingresos corrientes liquidados en 2015. Para dicho cálculo, se ha partido del importe de deuda viva correspondiente a todas las operaciones vigentes a 31 de diciembre de 2015, incluido el riesgo derivado de los avales; al resultado obtenido se han agregado las operaciones formalizadas y no dispuestas así como aquéllas que estén previstas para el año 2016, y se han deducido las amortizaciones previstas para 2016.*

*Por lo tanto, teniendo en cuenta los expedientes de modificación de créditos, esta entidad local sí cumple el objetivo de sostenibilidad financiera.*

*3. Regla de gasto*

*El objetivo a cumplir para el 2016 será que la variación del gasto computable entre 2015 y 2016 no supere el 1,8%.*

*La variación del gasto computable en el ayuntamiento entre 2015 y 2016 es del 11,25%.*

*Para realizar el cálculo anterior se han tenido en cuenta los datos consolidados de las entidades arriba relacionadas, de acuerdo con el siguiente detalle (los datos del 2015 son los de la liquidación):*

| GASTU KONPUTAGARRIA | | |
|---|---|---|
| a1 | *Gastu ez finantzieroa 2015 (kap 1etik 7ra)* | 8.107.138,02 |
| a2 | *SEC doikuntzak* | 0,00 |
| a3 | *Interesak 2015* | 106,79 |
| a4 | *Finantzaketa lotuko gastua 2015* | 245.451,59 |
| a=a1+a2-a3-a4 | *Gastu konputagarria 2015* | **7.861.579,64** |
| | | |
| b1 | *Gasto ez finantzieroa 2016 (cap 1 a 7)* | 9.118.285,89 |
| b2 | *SEC Doikuntzak* | 0,00 |
| b3 | *Interesak 2016* | 150,00 |
| b4 | *Eragindako finantzaketa duen gastua 2016* | 372.050,00 |
| b5 | *Araudi aldaketen efektua* | 0,00 |
| b=b1+b2-b3-b4-b5 | *Gastu konputagarria 2016* | **8.746.085,89** |
| | | |
| c=(b/a-1)*100 | *Gastu konputagarriaren bariazioa (%tan)* | 11,25 |

| VARIACIÓN DEL GASTO COMPUTABLE | | |
|---|---|---|
| a1 | *Gasto no financiero 2015 (cap 1 a 7)* | 8.107.138,02 |
| a2 | *Ajustes SEC* | 0,00 |
| a3 | *Intereses 2015* | 106,79 |
| a4 | *Gasto con financiación afectada 2015* | 245.451,59 |
| a=a1+a2-a3-a4 | *Gasto computable 2015* | **7.861.579,64** |
| | | |
| b1 | *Gasto no financiero 2016 (cap 1 a 7)* | 9.118.285,89 |
| b2 | *Ajustes SEC* | 0,00 |
| b3 | *Intereses 2016* | 150,00 |
| b4 | *Gasto con financiación afectada 2016* | 372.050,00 |
| b5 | *Efecto cambios normativos* | 0,00 |
| b=b1+b2-b3-b4-b5 | *Gasto computable 2016* | **8.746.085,89** |
| | | |
| c=(b/a-1)*100 | *Variación del gasto computable (en %)* | 11,25 |

*Beraz, kreditu aldaketaren espedienteak kontuan izanik, tokiko erakunde honek ez du 2016rako gastu araua betetzen.*

*Gastu araua diruzaintzako gerakina erabiltzeagatik betetzen ez denez, plana ordezkatu egiten da Osoko Bilkurari egindako jakinarazpenarekin.*

*Por lo tanto, teniendo en cuenta los expedientes de modificación de crédito, esta entidad local no cumple la regla de gasto para 2016.*

*Dado que el incumplimiento de la regla de gasto se produce por la utilización del remanente de tesorería el plan se sustituye por la comunicación al pleno.*

**Ondorioa**

*Gastu araua eta kreditu aldaketaren defizita betetzen ez direla kontuan izanik; eta aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasun gaietan finantza babeseko eskumena garatzeko agindua betez, Osoko Bilkurari jakinarazten dio egoera hori.*

*Kreditu aldaketa diruzaintzako gerakinarekin eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarekin finantzatzen da; ekitaldi honetan, eskoletako obrak egiteko eta jarduerak egitea diruz laguntzeko. Gastu horiek ez dira aurrekontuaren iraunkortasunerako arrisku bat, jarduketa horiek ez dute etorkizuneko ekitaldietako gastuan eragingo".*

Consuelok galdetu du zergatik ekartzen den gai hau Osoko Bilkurara. Kontu-hartzaileak erantzun dio Arauak egoera honen berri ematea eskatzen duela, kreditu aldaketa bat gertatzen den bakoitzean, aurrekontu egonkortasunean eta iraunkortasun finantzieroan indarrean dagoen araudia betetzen den ikusi behar da. Zehazki honako puntu hauek: 1.- Aurrekontu egonkortasuna. 2.- Zor publikoa eta 3.- Gastu araua. Kontu-hartzaileak azpimarratu du, gure kasuan, 1 eta 3 arauak betetzen ez badira ere, arau horrek berak aukera ematen duela, egoera hori gerakinaren ondorio bada eta gainera, aurrezki positiboa eta gerakina positiboa bada, Osoko Bilkurari jakinarazpen hutsa egiteko, eta ez da beharrezkoa plan ekonomiko-finantzieroa egitea.

**8.-<u>Zurrumurruen aurkako sarearekin bat egitea.</u>**

Alkateak hartu du hitza eta Zurrumurruen euskal Sarearen berri eman du. Defendatu egin du, xenofobia prebenitzeko gizarte sentsibilizaziorako estrategia modura definituz, erakunde publikoek, gizarte-erakundeek eta norbanakoek partekatutakoa. Sare honen helburua elkarlanerako espazio bat osatzea da xenofobiaren eta arrazismoaren prebentzioan sinergiak sortzeko eta komuneko identitate bat eraikitzeko, Euskadiko zurrumurruen aurkako hainbat estrategia izendatzeko. Sare hori Udal, gizarte erakunde eta elkarte askok osatzen dute ofizialki eta Urnietako Udalak ere bat egin nahi du horiekin.

***Conclusión***

*Teniendo en cuenta el incumplimiento de la regla de gasto y el incumplimiento de déficit la modificación de crédito; y en cumplimiento con la instrucción para el desarrollo de la competencia de tutela financiera en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera comunico al Pleno dicha situación.*

*La modificación de crédito se financia con el remanente de tesorería y con la subvención del Gobierno Vasco; para realizar las obras de los centros escolares y subvencionar la realización de actividades en este ejercicio. Dichos gastos, no suponen un riesgo para la sostenibilidad presupuestaria, la realización de dichas actuaciones no va a repercutir en el gasto de futuros ejercicios."*

Consuelo Frutos pregunta por qué se trae esto al pleno. Le contesta la Interventora que la Norma señala que hay que informar sobre esa situación, cada vez que se hace una modificación de crédito hay que ver si se cumple la normativa que existe en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera. En concreto los siguientes puntos: 1.-Estabilidad presupuestaria,2.-Deuda Pública y 3.-Regla de gasto. Recalca la interventora que en nuestro caso, aunque no se cumplan las reglas 1 y 3, esa misma norma posibilita que si esa situación es consecuencia del remanente y que si además tienes un ahorro positivo y el remanente positivo es suficiente con informar al Pleno y no es necesario un plan económico-financiero.

**<u>8.- Adhesión a la Red Vasca Antirumores</u>**

Toma la palabra el alcalde dando cuenta de la Red vasca Antirumores, definiéndola como una estrategia de sensibilización social para la prevención de la xenofobia compartida por instituciones públicas, organizaciones sociales y personas a título individual. Una red que tiene como objetivo el fortalecimiento de un espacio colaborativo para generar sinergias en materia de prevención de la xenofobia y el racismo así como la construcción de una identidad común denominadora de las diversas estrategias antirumores de Euskadi. Son muchos los Ayuntamientos, entidades sociales y asociaciones los que conforman oficialmente esta red y a ellas se le quiere unir el Ayuntamiento de

Urnieta.

Bozkatuko den proposamena Zurrumurruen Kontrako Euskal Sarearekin bat egitearena izango da, helburu hauek betetzeko:

1.- Ezagutzarako eta ondo jarduteko espazio bat izatea zurrumurruen aurkako estrategiarekin loturan, eta hedaduraz, diskriminazioaren eta xenofobiaren aurkako prebentzio eta borrokarekin.

2.-Lan esperientzia bateratuak edota koordinatuak sortzea (arreta berezia jarriz prestakuntza prozesuen diseinuan, dokumentazioaren osaketan eta jakintzako materialetan, eta zurrumurruen aurkako ekintzen katalogo bat osatzea, sarean partekatu ahal izan dadin eta interesa luketen erakundeei eskaini ahal izan dakien).

3.- Euskadin sortutako zurrumurruen aurkako esperientzien gizarte eragina hedatzeko eta biderkatzeko bide bat aldeztea.

4.- Gizarteko eta erakundeetako eragile berriak sartzea, horiekin esperientziak eta helburuak partekatzeko.

Jarraian azaltzen den proposamenak, 3 puntu ditu:

1.-Zurrumurruen aurkako sareak ezarritako oinarriekin bat egiten dugula adieraztea.

2- Urnietako Udala Zurrumurruen aurkako sareko kide izateko eskaera bideratzea.

3.-Erabaki honen berri Zurrumurruen aurkako sarea osatzen duten kide guztiei bidaltzea.

Consuelo Frutos-ek hartu du hitza eta esan du ados daudela proposamenarekin eta galdetu du horrekin loturan jardueraren bat egitea pentsatua ote daukaten.

Alkateak ezetz erantzun dio. Behin sarearekin bat egin ondoren, bere dinamikan sartuko gara eta dagozkigun jarduketak gauzatuko ditugu.

Itziar Artolak hartu du hitza eta esan du ados daudela.

Siendo la propuesta a votar la de la adhesión a la Red Vasca Antirumores para dar cumplimiento a los siguientes objetivos:

1.-Ser un espacio para el conocimiento y análisis de buenas prácticas en relación con la estrategia antirumores, y por extensión con la prevención y lucha contra la discriminación y la xenofobia.

2.-Generar experiencias de trabajo conjuntas y/o coordinadas ( con especial atención al diseño de procesos formativos, elaboración de documentación y materiales para el conocimiento, y el desarrollo de un catálogo de acciones antirumores que pueda ser compartido en el ámbito de la red y ofrecido a cuantas entidades o instituciones pudieran estar interesadas)

3.- Propiciar un canal para la difusión y multiplicación del impacto social de las experiencias antirumores generadas en Euskadi)

4.-Incorporar a nuevos agentes sociales e institucionales con los que compartir experiencias y objetivos.

La propuesta que se somete a continuación tiene 3 puntos:

1.-Exponer que estamos de acuerdo con las bases propuestas por la Red Antirumores.

2- Llevar a cabo la solicitud para que el Ayuntamiento de Urnieta sea miembro de la Red Antirumores.

3.-Informar sobre este acuerdo a todos los miembros de la Red Antirumores.

Toma la palabra Consuelo Frutos para señalar que están de acuerdo con la propuesta y pregunta si ya se está pensando en alguna actividad al respecto.

Le contesta el alcalde que no. Una vez adheridos a la red entraremos en su dinámica y desarrollaremos las correspondientes actuaciones.

Toma la palabra Itziar Artola para señalar que están de acuerdo.

Alkateak puntua bozkatzea proposatu du, eta emaitza honako hau izan da:

Alde: 13 (EAJ-PNV 7, EH BILDU 4, PSE-EE/PSOE 2)

Aurka: 0

Abstentzioak: 0

Osoko Bilkurak, aho batez hartu du ondorengo

**ERABAKIA**

**<u>Lehena</u>**.- Urnietako Udalak Zurrumurruen Aurkako Sarearekin bat egitea.

**<u>Bigarrena</u>**.- Erabaki hau Zurrumurruen Aurkako Sareari jakinaraztea.

**9.-<u>Mozioak</u>:**

**<u>9.1.-Udal talde sozialistak aurkeztutako mozioa Estatuburuek eta EBko gobernuak izenpetutako aurreakordioari buruz.</u>**

Consuelo Frutos-ek hartu du hitza 2016ko martxoaren 15ean beraiek aurkeztutako mozioa irakurtzeko*: "Urnietako Udaleko Udal Talde Sozialistak, indarrean dagoen legediaren babesean, gaurko Osoko Bilkurari honako **PRESAZKO MOZIO** hau aurkezten dio, **Estatuburuek eta EBko Gobernuek Turkiarekin sinatu duten aurre hitzarmenari buruz.***

***<u>Zioen azalpena:</u>***

*Joan de asteartean, martxoak 8, Estatuburuek eta Europar Batasuneko Gobernuak, aurreakordio bat hartu zuten migrante guztiak Turkiara deportatuko dituen programa abian jartzeko - herrialde horretan barrena Europar Batasunera iristen diren Siriako eta beste edozein nazionalitateko asilo eskatzaileak barne-, Batasuneko Estatuek, Turkian bizi diren siriar errefuxiatu kopuru berdina birkokatzearen truke, eta baitaTurkiar Estatuaren aldeko beste neurri ekonomiko eta politiko batzuen truke ere.*

*Euskal sozialistek uste dugu, akordio hori*

El alcalde ha propuesto someter a votación el punto, con el siguiente resultado:

A favor: 13 (EAJ-PNV 7, EH BILDU 4, PSE-EE/PSOE 2)

En contra: 0

Abstenciones: 0

El Pleno, acuerda por unanimidad el siguiente

**ACUERDO**

**<u>Primero.-</u>** La adhesión del Ayuntamiento de Urnieta a la Red Vasca Antirumores.

**<u>Segundo.-</u>** Notificar este acuerdo a la Red vasca Antirumores.

**9.-<u>Mociones;</u>**

**<u>9.1.-Moción presentada por el Grupo municipal socialista sobre el preacuerdo suscrito por los jefes de Estado y Gobierno de la UE.</u>**

Toma la palabra Consuelo Frutos que pasa a dar lectura a la moción presentada por ellos a fecha 15 de marzo de 2016: "*El Grupo Municipal Socialista en el Ayuntamiento de Urnieta, al amparo de lo dispuesto en la legislación vigente, presenta al Pleno Ordinario de hoy la siguiente **MOCIÓN URGENTE en relación al preacuerdo suscrito por los jefes de Estado y el Gobierno de la UE con Turquía.***

***<u>Exposición de motivos:</u>***

*El pasado martes 8 de marzo, las y los Jefes de Estado y de Gobierno de la Unión Europea alcanzaron un principio de acuerdo para poner en marcha un programa para deportar a Turquía a todos los migrantes –incluidas las personas demandantes de asilo sirios y de cualquier otra nacionalidad , que lleguen a la Unión Europea a través de este país, a cambio de que los Estados de la Unión reubiquen a un número equivalente de personas refugiadas Siria asentadas ya en Turquía, y de otras medidas económicas y políticas a favor del Estado Turco.*

*Los y las socialistas vascos consideramos*

*baieztatzen baldin bada, Europar Batasuna ez litzatekeela nazioarteko asilo eskubideari buruzko nazioarteko hitzarmenak errespetatzen ariko. Eta ,gainera, Europar Batasunaren deseraikitzeko prozesu baten aurrean ere egongo ginatekeela. Euskal sozialistek ez dugu Europa hau egiten ari dena ulertzen, eta uste dugu ezin dela Turkiarekin interes akordio bat egin errefuxiatu eta migranteen eskubideak truke-txanpon modura erabiliz, onartezina dela uste dugulako.*

